

Aspaldiko Sagardo Egunik euritsuena

Eguraldiaren ondorioz, beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili zen Sagardo Egunean. Hala ere, giroa ederra izan zen egun osoan.

Irekiera ekitaldia hunkigarria izan zen. Lehen lehenik, JoxAnton Artzeren olerki bat errezipitatu zuen Arantzazu Aranburuk, txalaparta doinuaz lagunduta. Segidan, Saizar sagardotegiko Esteban Lertxundi omendu zuten antolatzaileek. Sagardo Egunari laguntza handia eskaini izan diote beti Saizarkoek. Iazko uztailean zendu zen Esteban Lertxundi.

Irekiera egin eta gero hasi zen sagardo festa. Aurten, bertako sagardoarekin batera Galiza, Kantabria eta Errusiako sagardoa dastatzeko aukera izan da.

Sagardo Eguneko irudi gehiago noaua.com webguneko argazkitegian topatuko dituzue.



SAGARDO EGUNEKO ANTOLATZAILEEK ESTEBAN LERTXUNDI OMENDU ZUTEN. BERE ALABAK JASO ZUEN ERRAMUA ETA SAGARDO EGUNEKO ZAFIA.



BOTATZAILEAK DAUDEN TOKIAN BETI IZANGO DA SAGARDOA EDATEKO PREST DAGOENIK. EURIA GOGOTIK EGIN ARREN...



IÑAKI AGIRRESAROBEBK IRABAZI ZUEN LEHIAKETA. OXKAR SANTAMARIA BIGARREN IZAN ZEN ETA IKER MUGURUZA HIRUGARREN.



SAGARDO EGARRIZ ZEGOEN JENDEA. NAHIZ ETA AURTEN LAGUN GUTXIAGO IBILI, BOTATZAILEAK ETENIK GABE ARITU ZIREN LANEAN.

LATAILLADE    **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztizxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gezotegia


LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

I n t e r m u n i k



Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Heapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

